

NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Samuel Morse


## New Yorkeko alkategai

**N**ew York, 1836. Samuel Morse (Boston, 1791 – New York, 1872) margolari eta asmatzailea hiriko alkate izateko aurkeztu zen. Garai hartan, ordura arte bizibide izan zuen pintura alde batera utzi eta asmakizunetan buru belarri aritzea erabaki zuen. Baina bere ideia politiko eta erlijioso muturrekoak ez zituen baztertu.

Erljioak Morserentzat zuen garrantzia garbi geratu zen zortzi urte geroago, 1844ko maiatzaren 24an, Washingtonetik Baltimorerara Morse kode bidezko lehen mezua telegrafiatu zuenean: “What hath God wrought” edo “Jainkoak forjatu duena”. Morse protestanteen jainkoaz ari zen. AEBetako XIX. mende erdialdeko katolikoekin eta etorkinen aurkako mugimenduaren buruzagi nagusietakoa zen eta Nativist Party edo natiboekin aldeko alderdiarekin aurkeztu zen New Yorkeko hauteskundeetan.

Natiboez ari zenean, ez zen Ipar Amerikako jatorrizko biztanleaz ari; bere buruaz eta bera bezalakoez ari zen, benetako natiboak baztertu eta sarraskitu zituzten etorkin europarren oinordekoaz, eta, zehatzago, etorkin protestanteen oinordekoaz. Bere helburua protestanteak instituzio katolikoekin aurka batzea zen. Bere proposamenen artean zeuden katolikoei kargu publikoak izan zitzaten debekatea eta immigrazio legeak aldatzea, etorkin kopurua murrizteko.

Eta etorkinez ari zenean, ez zen es-



LEEMAGE

Samuel Morse (Boston, 1791 – New York, 1872) New Yorkeko alkate izateko aurkeztu zen 1836an.

klaboez ari. “Esklabotza ez da berez bekatua”, idatzi zuen, “Jainkoak zentzu onez munduaren hasieratik agindutako baldintza soziala da, diziplinazkoa eta onbera”. Moralki, esklaboen jabe izatea “guraso, enplegatzaile edo agintari” izatearen parekoa zen harentzat.

Samuel Morsek arrakasta eta aitortza lortuko zituen komunikazioen mundua goitik behera aldatu zuten asmakizunei esker, nagusiki, bere izena daraman ko-

deari eta telegrafoari esker. Morse kodeaz gain, egun, haren izena dute Ilargiko krater batek, asteroide batek eta Argentinako udalerrri batek.

Baina, batez ere katolikoekin, etorkinena eta esklaboen zorionerako, politikan ez zuen halako arrakastarik lortu eta haren izena ez zen New Yorkeko alkateen zerrendan sartu; garai hartan 300.000 biztanle inguru zituen hirian 1.496 bozka lortu zuen. ●

## Erromatarren mahai jokoak Lleidan

**1**970eko hamarkadan antzinako gotorleku bat topatu zuten Lleidak Biosca herritik gertu eta arrasto iberiarrak zirela pentsatu zuten. 2014an arkeologoek berriro ekin zioten aztarnategia ikertzeari eta erromatar *castellum* bat zela ondorioztatu zuten; aurkitutako iberierazko inskripzioek adierazten dute garnizioan bertako soldaduak ere bazirela.

2019an, eraikin baten barruan harlauza bat aurkitu zuten eta, hasieran, zoru zati bat besterik ez zela pentsatu zuten. Baina indusketa lanetan laguntzen ari zen ikasle bat konturatu zen harlauzak lauki-sarea duela zizelkatuta. Berriki baieztatu dute *ludus latruncolorum* edo lapurren jokoaren taula dela, aurkariaren fitxak geldiarazi eta jatean zetzan estrategia jokoarena. ●

